

# Erregetxe orubea

Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea  
Finantzazioa: Soraluzeko Udala

*The intervention carried out has facilitated the identification of a series of archaeological remains linked to a building constructed in the zone at the beginning of the 19th century (the Royal Arms Factory) and its later demolition and terracing of its siting. There is no existence of remains prior to that date.*

Erregetxe izenaz ezagutzen den orubea Soraluzeko Hirigune Historikoan dago, haren iparraldeko muturrean.

Egun ez dago eraikinik orube honetan, eta aparkaleku gisa erabili izan da. Iraganean hiribilduari eta orubeari berari izena eman zion Errege Arma Fabrika zaharrak okupatzen zuen orube hau. Fabrika hori XIX. mendean ekarri zuten Deba ibaiaren beste aldeko jatorrizko kokalekutik, Baltegiatako errabaletik –hasieran bertan eraiki baitzuten 1573. urte inguruan- orube honetara. Baina espazioa txikia izanik, udal agintariak handiagoa zen orube baten bila hasi ziren, eta fabrika udal pilotaleku zaharrari leku egiten zion orubera eramateko erabakia hartu zuten; bertan gutxi gora-behera 1.800 metro koadro zituen eraikin berria eraiki zuten. Fabrika 1865. urtera arte izan zen jardunean, erregeak bere izeneko arma fabrika guztiak utzi zituen arte, eta gero beste erabilera batzuk (ikastetxeak, etxebizitzak, udal zerbitzuak, azoka, etab.) eman zizkieten instalazioei 1976. urtean betikoz eraitsi zuten arte.

Interbentzio arkeologikoak hasieran arma fabrika zaharrarekin zerikusia zuten egituren kontserbazio egoera zehaztea zuen helburu, eta hedaduraz, hiriko espazio zehatz honetako lehenagoko okupazio aldietakoak.

Beraz hiru zundaketa arkeologiko egin genituen orube honetako beste hainbeste sektoretan.

Erregistratutako estratigrafia oro har antzekoa izan zen hiruetan: egungo asfaltozko geruzaren azpian betegarri lodi bat erregistratu genuen, betegarria lurrez eta eraikuntza materialez (teilak, adreiluak, plastikoak eta gisakoak), denak nahasian, osatua. Betegarri hau Erregetxe eraikinaren eraipen prozesuaren eta geroago bururatutako lur eremua berdintzeko lanen emaitza da. Betegarria zuzenean lur eremuko geruza naturalaren gainean egokitzen zen zundaketaren parterik handienean, edo bestela izaera oso apaleko horma egitura batzuk estaltzen zituen, hauek harrizko bloke handiz eginak, lehorrean ipiniak, lur eremu natural berean egindako ebakian. Azken horma hauek, itxura guztien arabera, eustormarenak egingo zituzten lur eremua zelaitzeko eta terrazak eratzeko, hiribilduko beste leku batzuetan ikusten den bezala.

III. zundaketa izan zen halako garrantzia izan dezakeen egitura aurkitzeko parada eskaini ziguna. Bertan hainbat horma atal bereizi genituen, eta hauek bat egiten zuten angelu zuzena eratzeko. Landu gabeko harriz egindako hormak dira, harriak kareore arin batez batuak, hormak 0,65 eta 1,10 metro bitarteko lodierarekin, zuzenean lur eremuko buztin naturalaren gainean egokituak. Horma horien egokierari erreparatuz eta orubearen iparraldeko muturrean artean kontserbatzen ziren beste atal batzuen aldean zuten antzekotasuna kontuan hartuz, jatorrizko Erregetxe eraikineko zimentarrien atala osatu zutela egiaztatu genuen. Gainera, aipatutako eraikina islatzen zuen XIX. mende hasierako plano baten gainean trazu horiek marrazturik, biak bat zetozela egiaztatu genuen. Hala eta guztiz ere, interbentzio arkeologikoak ez zuen Erregetxe eraikina eraiki baino lehenagoko okupazioaren zantzurik eskaini. Beraz, 1804. urte inguruan fabrika birgaitzeko bururatutako obrek lehenagoko maila betikoz galarazi zutela pentsatzen dugu.



*Erregetxe orubea (Soraluze). III. zenbakiko zundaketaren ikuspegia, Erregetxe eraikin zaharreko paramentuen xehetasunekin.*